II
Huarte
Tresnaka.net / Sonido

Tresnaka.net es un proyecto que recoge procesos creativos de artistas vinculados al Centro Huarte de Arte Contemporáneo para su difusión dentro del ámbito artístico, cultural y educativo.

Se trata de un proceso vivo al que se incorporan contenidos de manera continuada. Incluye una serie de propuestas didácticas diseñadas por profesionales de la educación artística con las que usar los procesos creativos de los y las artistas en escuelas u otros contextos educativos.

La web da la opción de búsqueda por temas. Lo que aquí se presenta son los recursos que ofrece *Tresnaka.net* asociados a la palabra "SONIDO".

Artistas vinculados al tema "SONIDO" dentro de la web Tresnaka.net

Peru Galbete

Su práctica se configura en el terreno de la música (la voz) y la imagen (video/cine), ya sean trabajadas por separado como relacionándolas entre sí. Desde la motivación y necesidad personal emprende proyectos diversos en solitario y en colaboración: proyectos musicales, multidisciplinares, performativos o cinematográficos, siendo el uso de su voz como materia prima y como medio de exploración y expresión una constante que atraviesa la mayor parte de ellos. Temas como la memoria, la identidad o el paso del tiempo están presentes en sus trabajos más recientes.

Para saber más : https://www.tresnaka.net/artistas/peru-galbete

Iosu Zapata

Su trabajo se centra en cuestiones relacionadas con los espacio abandonados, las periferias y la aparición de la naturaleza en el espacio urbano. Pone el foco en objetos y lugares desechados por el sistema, que se materializan a través de la pintura, la instalación, el stop motion o el sonido o la intervención. En constante diálogo con la naturaleza, elabora una reflexión sobre el capitalismo y el paisaje en nuestra sociedad contemporánea. Artista comprometido, apuesta por un arte que intenta aportar nuevas ideas estéticas para la convivencia.

Para saber más: https://www.tresnaka.net/artistas/iosu-zapata

Xabier Erkizia

Músico, productor, periodista y artista sonoro. La principal característica de su trabajo es la investigación y la curiosidad en cualquier forma de comunicación o creación que implica la escucha y lo sonoro. Ha colaborado (en estudio y en directo) con artistas de diferentes disciplinas y procedencias y sus prácticas abarcan desde la radio a la producción musical, la escritura (artículos de opinión sobre música, ensayos), composición de bandas sonoras (cine, teatro, danza), hasta su vertiente más experimental (instalaciones, música concreta...).

Para saber más: **https://www.tresnaka.net/artistas/xabier-erkizia**

Romina Casile

En su obra investiga en los vínculos de intimidad y modos de comunicación que se pueden desenvolver con los objetos cotidianos, en paralelo al desarrollo de artefactos/dispositivos que posibilitan una funcionalidad sonora. Estás búsquedas se enlazan con investigaciones en relación a la poesía, a la música experimental, atravesadas por nociones de partituras y coreografía expandida. Su práctica, caracterizada por una configuración colaborativa/afectiva se despliega en objetos instalaciones, performances y videos.

Para saber más: **https://www.tresnaka.net/artistas/romina-casile**

Zarys Falcon

Artista Interdisciplinar, performer vocal, mediadora e investigadora. Desarrolla su práctica desde procesos que generan convergencias e hibridaciones entre la música vocal popular y experimental, el movimiento y expresiones culturales afrocaribes de raíz ancestral. Su voz, expresiva y potente, denota versatilidad y eclecticismo.

Para saber más: **https://www.tresnaka.net/artistas/zarys-falcon**

Propuestas didácticas vinculadas al tema “SONIDO” dentro de la web Tresnaka.net

Móvil

A partir de un proceso colectivo en la elaboración de un artefacto móvil sonoro, desarrollar distintas propuestas creativas que modifiquen una tendencia política en el uso del espacio público a través del sonido.

Objetivos

- Aproximarnos a la obra de Iosu Zapata.
- Generar un artefacto móvil sonoro para intervenir en una zona urbana.
- Fomentar el trabajo colectivo para la realización de una obra.
- Concienciar sobre la sostenibilidad; trabajar el reciclaje y la bicicleta como herramienta de transformación social.
- Reflexionar sobre el uso de los espacios públicos y la arquitectura efímera como contribución a un estilo de vida y cultura sostenibles.

Referencias

Radio Irrintzi / Landarte (Navarra): *https://www.youtube.com/watch?v=CiyePhDYXxY&t=1s*
Radio GAGA: *https://www.youtube.com/watch?v=YxKWW9PScf4*
Chico Trópico - Sampleo Vecinal: *https://www.youtube.com/watch?v=Pe8_QJcQvBY*
Francis Alys: *https://www.youtube.com/watch?v=WvkTLAdKP24*

Desarrollo de la propuesta

Presentación

1. "MÓVIL", es un proyecto en el que vamos a generar un artefacto móvil sonoro sobre una bicicleta. Una pequeña arquitectura sostenible con la que poder generar una plataforma de radio on-line y acercar dinámicas sonoras (retrato del paisaje, entrevistas, etc.) a lugares que aparentemente no se relacionan con el ámbito artístico (plazas, terrazas, etc.)

2. Partiendo de una presentación del proyecto "RADIO IRRINTZI" de Iosu Zapata valoramos y reflexionamos sobre las necesidades y objetivos para desarrollar "MÓVIL"

¿Qué es una intervención urbana?
¿Se puede revitalizar el espacio público y generar encuentros participativos a través del arte?
¿Cuál es el sonido que nos rodea en un contexto urbano?

Experimentación / Creación / Investigación

1. Creamos grupos de trabajo dividiendo así las tareas a realizar. Entendemos estos grupos como una plataforma en red siendo importante posibilitar sinergias en función de las necesidades de cada tarea.

Estas pueden ser las responsabilidades de cada grupo:

- Construir una estructura móvil reciclada adaptándola a una bicicleta.
- Investigar sobre plataformas digitales de radios libres (butt).
- Analizar de qué manera se puede incidir en el espacio público.
- Cómo trabajar el concepto "streaming" desde un aspecto creativo.

2. Cada grupo analizará las necesidades de los otros grupos para concretar en una solución común y poder activar "MÓVIL": el tamaño y forma de la estructura móvil, lugares donde desarrollar la propuesta, necesidades técnicas de la instalación, conexión a la red para desarrollar la emisión sonora.

3. Las necesidades materiales pueden ser: bicicleta, ordenador portátil, tarjeta de sonido, micrófono, conexión a Internet, material reciclado (tablas, cartones, etc.)

4. Elaborar un calendario de las intervenciones en el espacio público y documentar cada acción para obtener un resumen de la experiencia realizada.

Conclusiones y líneas abiertas

1. Una vez finalizadas las acciones, visualizamos la documentación generada y valoramos qué aspectos no explorados desde "MÓVIL" podrían tener continuidad con el proyecto.

2. Nos preguntamos:

¿Qué otras plataformas móviles podemos generar para abordar nuevas dinámicas culturales, nuevas tecnologías, cine, espacio de lectura o biblioteca, radio, etc.?

¿Es posible seguir dándole continuidad a "MÓVIL" como una herramienta que visibiliza a la escuela fuera de las aulas en el espacio público?

¿Cuáles son las conclusiones del sonido que nos rodea?¿Generan experiencias? ¿Forman la memoria de un lugar?

Diseño de contenido: Iosu Zapata

IOSU ZAPATA

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

TRESNAKA

Escuela sonora

XABIER ERKIZIA

¿Sabemos reconocer los lugares por sus sonidos? ¿Qué información nos dan los sonidos de cada lugar? ¿De qué manera contribuimos nosotros/as a ese paisaje sonoro? ¿y cómo afecta en nosotros/as?

Trasladamos esta reflexión al espacio que comparten los y las alumnas; la escuela. Proponemos una pequeña investigación sonora con ejercicios sencillos de audición, que aporte una nueva manera de conocer y habitar el espacio.

Objetivos

- Acercarnos a la obra y procesos creativos de Xabier Erkizia.
- Incluir y habituarse al ejercicio de escucha como modo de aprendizaje. Trabajar el silencio, ejercicios de audición y producción sonora como herramienta de investigación.
- Disfrutar y tomar conciencia de la importancia del sonido en la construcción del paisaje y nuestra relación con el mismo.

Referencias

Soinu mapa. (Audiolab) *www.soinumapa.net*
https://www.audiolab.org/
R. Murray Schafer, Hacia una educación sonora. *https://www.academia.edu/13298511/Hacia_una_educaci%C3%B3n_sonora_Hacia_una_educaci%C3%B3n_sonora*
IN-SONORA plataforma creada para apoyar y dar visibilidad al Arte Sonoro e Interactivo.
https://in-sonora.org/que-es-insonora/
Algunas obras sonoras: *http://mauriciorivera.com/unagotadeagua.html*
https://vimeo.com/327337951

Desarrollo de la propuesta

Presentación

1. Sentados en círculo. Permanecemos en silencio 1 min. y escuchamos. *¿Qué hemos escuchado?* Compartimos los sonidos escuchados. Repetimos el ejercicio con ojos cerrados durante 2 min. *¿Algo nuevo?* Reflexión.

2. Jugamos con "Soinu mapa" de Xabier Erkizia. Elegir de forma aleatoria diferentes lugares y escuchar los sonidos. *¿Los reconocemos? ¿Nos imaginamos en ese lugar?¿Conocemos sonidos similares?*

Experimentación / Creación / Investigación

1. Recorremos los espacios de la escuela. El/la profesor/a lleva una grabadora o móvil. En grupo, caminamos y nos detenemos en diferentes lugares. Permanecemos en silencio y grabamos durante 30 seg.

2. En el aula, **reproducimos** los sonidos grabados. Jugamos a reconocerlos. *¿Sabemos cuáles son? ¿Qué sonidos nos gustan? ¿Cuales no?* Asignamos un color a los lugares sonoros de la escuela que nos gusten y otro a los que no. Entre todos/as, ideamos la manera de identificarlos en el propio espacio; pegatinas, carteles, escribir con tiza...

3. *¿Nos gustaría **transformar** alguno de los sonidos?* Ideamos una pequeña intervención conjunta.

4. Realizamos la **intervención** en un espacio determinado. Registramos el sonido. Después lo reproducimos en el aula y comentamos lo ocurrido.

5. Materiales necesarios:

- Ordenador, proyector y pantalla.
- 1 Grabadora de sonido o móvil.
- Tizas de colores, pegatinas de colores, hojas, cinta aislante...
- Cámara de fotos/móvil para el registro del proceso.

Conclusiones y líneas abiertas

- Compartimos con el resto de las clases el proceso de investigación. (El o la profesor/a puede hacer una presentación con las fotos, una carpeta de audios...)
- Invitamos al resto de alumnos/as a que diseñen y activen una intervención transformadora de alguno de los espacios sonoros seleccionados. Registramos las acciones.
- Incluimos el material generado en la web/blog de la escuela como otra forma más de darla a conocer.

Diseño de contenido: Artaziak

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

TRESNAKA

Escuchar y dibujar

Exploramos las potencialidades de la escucha; indagamos en las diferentes sonoridades de los espacios que nos rodean a través de ejercicios de escucha activa y de traducción a través del dibujo que nos permitan desarrollar nuevos vínculos con nuestro entorno.

Objetivos

- Expandir nuestra percepción agudizando la escucha.
- Incrementar el vínculo con el espacio sonoro que nos rodea de manera más consciente y con ello el reconocimiento de nuestro entorno a través del sentido de la escucha.
- Investigar en las posibilidades de la imaginación a partir de la escucha atenta y activa.
- Explorar el dibujo a partir de estímulos sonoros.
- Acercarnos a la producción e investigación, en su dimensión sonora, de los proyectos artísticos de Romina Casile.

Referencias

Audio n° 121 – Obra de Romina Casile: *http://www.rominacasile.com/Audio-n-121*

Publicación Audio n° 121– Obra de Romina Casile: *https://issuu.com/rominacasile/docs/proyecto_audio_n___121_rominacasile*

Libros: Nancy, Jean-Luc. A la escucha. *Buenos Aires: Amarrotu editores, 2007. Toop, David. Océano de sonido. Buenos Aires: Caja Negra Editora, 2016.*

Desarrollo de la propuesta

Presentación

¿Qué estamos escuchando ahora? ¿Cuántos sonidos reconocemos? ¿Cuántos son? ¿Cómo son?

La escucha activa es una forma de ser conscientes de los sonidos que nos rodean. Es una práctica, requiere atención y concentración, paciencia y empatía.

Incentivar estos aspectos nos permite entablar mejores condiciones en la comunicación y entablar nuevos vínculos con nuestro entorno.

Experimentación / Creación / Investigación

1. Ensayar la escucha

Hacemos tres respiraciones profundas para relajarnos y alejar el ruido interno. En silencio, quedamos a la escucha del entorno, intentando percibir cómo repercuten en nuestro cuerpo. Hacemos una lista intentando describir esos sonidos.

Compartimos la práctica grupalmente y contrastamos las diferentes percepciones sonoras. (Se puede realizar en un espacio decidido previamente por el profesorado, pudiendo ser un espacio interior o exterior).

2. Escuchar y dibujar: Audio n° 121

A partir del ejercicio anterior nos encontramos en un estado de mayor consciencia de los sonidos que nos rodean. En este estado, escuchamos unos minutos del disco "Ambient 1: Music for Airport" de Brian Eno. Luego, realizamos un ejercicio de traducción de lo escuchado a una práctica de dibujo. ¿Cómo traducir un sonido a un dibujo? ¿Qué clase de línea, trazo, formas, colores responderán a los ambientes sonoros? Compartimos los dibujos, identificamos dónde se ha puesto el interés y cómo han sido capturados.

3. Proyecto Audio n° 121

Abordamos el proyecto Audio n° 121 de Romina Casile. Visualizamos conjuntamente la publicación donde se encuentran 40 dibujos realizados por diferentes artistas como resultado de la interpretación del Audio n° 121. Compartimos opiniones y lo comentamos colectivamente.

4. Registro sonoro

Proponemos realizar un registro sonoro de un espacio elegido por cada alumno/a, generando un archivo de audio de entre 1 y 2 minutos (A través de una nota de voz con el móvil o un audio de Whatsapp). Puede ser un espacio de su casa, un recorrido por la ciudad, parque, etc.

En parejas, compartimos los audios (sin desvelar su origen) y luego traducimos el audio recibido a una propuesta visual, a uno o más dibujos de acuerdo a lo escuchado. Compartimos y dialogamos.

Conclusiones y líneas abiertas

La importancia de la escucha: ¿Cómo nos afectan los sonidos que nos rodean en el desarrollo de nuestros días? ¿Cuáles prevalecen y cuáles son silenciados? ¿Se puede entender el espacio a través de sus sonidos?

A partir de la reflexión, escribimos un breve texto personal donde describir un espacio que sea de nuestro agrado. Luego, los leemos en voz alta.

Compartimos las experiencias de la escucha activa. Pensamos juntos y juntas qué ha pasado en los ejercicios de traducción del sonido al dibujo. Desarrollamos conclusiones colectivas y realizamos una muestra de lo producido.

Diseño de contenido:Romina Casile

ROMINA CASILE

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

TRESNAKA

Mi voz, tu voz, mi voz

Partiendo de una experiencia vital en donde nuestra voz se sitúa en un lugar central, generaremos un proceso de investigación y creación en el que otras voces nos ayudarán a mover nuestro recuerdo y repensarnos desde ahí.

Objetivos

- Acercarnos a la obra y los procesos de trabajo de Zarys Falcon.
- Investigar y reflexionar sobre el valor poético de nuestras voces y su potencial educativo desde lo emocional.
- Poner en valor la trasmisión oral como ejercicio cotidiano de construcción identitaria.
- Entender el cuestionamiento continuo como herramienta de creación.
- Experimentar con los sonidos que produce nuestro cuerpo y con el material sonoro producido por otros.

Referencias

Webzine con referencias de textos, videos y audios creada por Zarys:
https://pressplaymusic.es/webzine/grietas-sonoras/intro/

R.Murray Schafer:
https://mediosyhumanidades.files.wordpress.com/2021/08/fdocuments.ec_hacia-una-educacion-sonora-r-murray-schafer.pdf

Edición sonido:
https://myedit.online/es/audio-editor/
https://www.bandlab.com/

Desarrollo de la propuesta

Presentación

1. Visionar:
- Actuación de Zarys con Katanga Dub: *www.youtube.com/watch?v=l8ywZqfZcbs*
- Memorias que cantan: *https://vimeo.com/user145105318*
- Proyecto Disonancias Comunes: *https://vimeo.com/user145105318*

2. ¿Qué tienen en común estos proyectos? Pensamos en tres ideas y las compartimos.

3. Pensamos en una experiencia vital en la que nuestra voz haya sido protagonista (un grito descontrolado por un susto, una carcajada que sale cuando no debe, una canción que tarareas en un momento inapropiado, un grito llamando a alguien…) ¿Qué papel tuvo nuestra voz en aquel momento? ¿Cómo nos sentimos antes, durante y después?

4. En parejas, describimos la experiencia:
- Susurrándola al oído
- Mientras caminamos de la mano
- Con una mano amiga sobre mi pecho o garganta

5. Hablamos en grupo sobre cómo nos hemos sentido y qué se ha generado de nuevo con el ejercicio.

Experimentación / Creación / Investigación

1. En parejas recogemos, en una grabación sonora, el testimonio de dos a cuatro personas de edades distintas de nuestro entorno más cercano. A ser posible, personas con una diferencia de edad de 20 años o más. Les haremos las mismas tres preguntas:
- Piensa en un momento vital en el que tu voz haya sido protagonista. Cuéntamelo.
- ¿Recuerdas una canción que cantarás y que te cantaran cuando tenías mis años?, ¿cántamelas?
- ¿Recuerdas una frase que alguien te dijera mucho cuando tenías mis años? ¿Y una frase que dijeras tú a alguien de manera habitual entonces? Dímelas.

2. Con el material sonoro de nuestra investigación, realizamos una composición sonora de entre 2 y 3 minutos. Podemos:
- Jugar con las palabras, el ritmo, la velocidad, el volumen…
- Centrarnos en una de las personas entrevistadas o mezclar a varias de ellas.
- Usar las grabaciones realizadas o reproducirlas, fijándonos en aquello que nos ha parecido más sugerente o sorprendente.
- Rescatar nuestras experiencias personales e integrarlas de algún modo en la composición.
- Introducir nuestras voces y otros sonidos generados con nuestros cuerpos.

3. Juntamos dos parejas y cada una muestra y explica a la otra su trabajo. Dónde hemos tenido más problemas, qué nos ha gustado más y porqué. ¿Con qué sensaciones nos quedamos? ¿Con qué aprendizajes?

4. En ese grupo de 4 personas, pensamos en una acción corporal usando una o las dos composiciones sonoras realizadas. Para ello, creamos un mapa-partitura de los movimientos y tiempos. Los ensayamos unas cuantas veces en el proceso de creación de la partitura.

Conclusiones y líneas abiertas

1. Abrimos un tiempo de diálogo guiado para reflexionar en base a estas preguntas:
- ¿Vemos nuestras experiencias reflejadas en la acción corporal creada? ¿Y en la pieza sonora? ¿Nos sentimos presentes en ellas? ¿De qué manera?
- ¿La experiencia vivida durante el proceso de creación condiciona o ha podido condicionar nuestra mirada a las experiencias ajenas relatadas? ¿y a las nuestras?
- ¿Las personas entrevistadas se sentirán representadas al ver/escuchar nuestros trabajos? ¿porqué?
- ¿Queremos preguntar algo al grupo?

2. Creamos una jornada de presentación de las acciones. Pensamos el lugar, buscamos los permisos necesarios y hacemos la publicidad que más nos apetezca.

3. Podemos invitar a las personas entrevistadas (o simplemente darles las gracias por participar en nuestro proceso). Para ello hacemos invitaciones (o agradecimientos) personalizadas:
a. Video-Invitación
b. Audio-Invitación

Diseño de contenido: Betisa Ojanguren

Tresnaka.net Uharteko Arte Garaikideko Zentroarekin harremana duten artisten sortze-prozesuak biltzen dituen proiektua da, gerora hauek artearen, kulturaren eta hezkuntzaren esparruen barruan zabaltzeko.

Etengabe mugitzen den prozesua da, edukiak modu jarraian gehitzen baitzaizkio. Arte-heziketako profesionalek diseinatutako proposamen didaktiko batzuk barne hartzen ditu, eskoletan edo hezkuntzaren bertze testuinguruetan artisten sortze-prozesuak erabiltzeko.

Web-orriak gaika bilatzeko aukera eskaintzen du. Hemen T*resnaka.net*-ek "SOINUA" hitzarekin erlazionatuta eskaintzen dituen baliabideak aurkezten dira.

Tresnaka.net web-orriaren barruan "SOINUA" gaiari lotutako artistak

Peru Galbete

Musikaren (ahotsa) eta irudiaren (bideoa/zinema) eremuan osatzen du bere praktika, bereizirik landuta nahiz elkarren artean harremantzen. Motibazio eta behar pertsonaletik abiatuta, askotariko proiektuetan murgiltzen da, batzuetan bakarrik eta beste batzuetan lankidetzan: proiektu musikalak, diziplina anitzekoak, performatiboak edo zinematografikoak. Bere ahotsa da lehengaia eta esploratzeko eta adierazpenerako baliabidea; proiektu gehienak zeharkatzen dituen konstante bat. Memoriaren, identitatearen eta denboraren iraganaren gaiak agertzen dira lan berrienetan.

Gehiago jakiteko: https://www.tresnaka.net/eu/artistak/peru-galbete

Iosu Zapata

Lantzen dituen gaiak abandonatutako espazioekin, periferiekin eta natura hiriko paisaian agertzearekin zerikusia dute. Sistemak baztertutako objektu eta tokietan jartzen du arreta; horiek pinturaren, instalazioaren, *stop motion* teknikaren bidez edo soinuaren edo esku-hartzearen bidez gauzatzen dira.Naturarekin aritzen da etengabe kapitalismoari eta gaur egungo gizartearen paisaiari buruzko gogoeta osatzeko. Artista konprometitua da, elkarbizitzarako ideia estetiko berriak sortzeko ahalegina egiten duen artearen aldeko jarrera dauka.

Gehiago jakiteko: https://www.tresnaka.net/eu/artistak/iosu-zapata

Xabier Erkizia

Musikaria, ekoizlea, kazetaria eta soinu-artista. Ikerketa eta jakinmina dira bere lanaren ezaugarri nagusiak, beti ere entzutearekin eta soinuekin zerikusia duten komunikatzeko edo sortzeko moduen ingurukoak badira. Hainbat diziplinetako eta jatorritako artistekin batera egin du lan (estudioan zein zuzenean), eta bere praktikak eremu zabala hartzen du: irratia, musika-ekoizpena, idazmena (musikari buruzko iritzi artikuluak, saiakerak), soinu-bandak konposatzea (zinemarako, antzerkirako, dantzarako), baita alderdi esperimentala ere (instalazioak, musika konkretua, etab.).

Gehiago jakiteko: https://www.tresnaka.net/eu/artistak/xabier-erkizia

Romina Casile

Eguneroko objektuekin gerta daitezkeen intimitatearen loturak eta konunikazio moduak aztertzen ditu bere obran, soinu-funtzionalitatea posible egiten duten artefaktu edo gailuen garapena aztertzearekin batera. Bilaketa horiek poesiarekin eta musika esperimentalarekin lotutako ikerketekin uztartzen dira, eta partituren eta koreografia hedatuaren kontzeptuak barne dituzte. Bere praktika modu askotan zabaltzen da, objektu, instalazio, performance eta video bidez, betiere kolaboraziozko edo afektibitate-konfigurazio baten baitan.

Gehiago jakiteko: https://www.tresnaka.net/eu/artistak/romina-casile

Zarys Falcon

Diziplinarteko artista, ahots-interpretea, bitartekaria eta ikertzailea. Ahots bidezko musika herrikoi eta esperimentalaren, mugimenduaren eta antzinako adierazpen kultural afrokaribetarren arteko bateratasunak eta hibridazioak sortzen dituzten prozesuetatik garatzen du bere praktika. Ahots adierazkor eta indartsua dauka, eta moldatzeko erraztasuna eta eklektizismoa erakusten ditu.

Gehiago jakiteko: https://www.tresnaka.net/eu/artistak/zarys-falcon

Tresnaka.net web-orriaren barruan “SOINUA” gaiari lotutako proposamen didaktikoak

Mugikor

Soinu-tresna mugikor bat egiteko prozesu kolektibo batetik abiatuta, espazio publikoa soinuaren bidez erabiltzeko joera politikoa aldatzen duten proposamen sortzaileak garatzea.

Helburuak

- Iosu Zapataren obrara hurbiltzea.
- Hirigune batean esku hartzeko, soinu-tresna mugikor bat sortzea.
- Artelan bat egiteko talde-lana sustatzea.
- Iraunkortasunari buruz kontzientziatzea; birziklapena eta bizikleta, gizartea eraldatzeko tresna gisa lantzea.
- Espazio publikoen eta arkitektura iragankorraren erabilerari buruz hausnartzea, bizitza eta kultura-estilo jasangarri bati laguntzeko.

Aipamenak

Irrintzi / Landarte Irratia (Nafarroa): *https://www.youtube.com/watch?v=CiyePhDYXxY&t=1s*

Radio GAGA: *https://www.youtube.com/watch?v=YxKWWgPScf4*

Chico Trópico - Sampleo Vecinal: *https://www.youtube.com/watch?v=Pe8_QJcQvBY*

Francis Alys: *https://www.youtube.com/watch?v=WvkTLAdKP24*

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. "MUGIKOR" proiektuan, bizikleta baten gainean soinu-tresna mugikor bat sortuko dugu. Arkitektura jasangarri txiki bat, irrati-plataforma bat online sortzeko eta soinu-dinamikak (paisaiaren erretratua, elkarrizketak, etab.) itxuraz esparru artistikoarekin loturarik ez duten lekuetara (plazak, terrazak, etab.) hurbiltzeko.

2. Iosu Zapataren "Radio Irrintzi" proiektuaren aurkezpen batetik abiatuta, "MUGIKOR" garatzeko beharrak eta helburuak baloratu eta hausnartzen ditugu:

Zer da hiriko esku-hartzea?
Espazio publikoa biziberritu eta topaketa parte-hartzaileak sor al daitezke artearen bidez?
Zein da hiri-testuinguru batean inguratzen gaituen soinua?

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Lantaldeak sortzen ditugu egin beharreko lanak banatuz. Talde hauek sarean dauden plataforma gisa ulertuko ditugu, eta garrantzitsua da, zeregin bakoitzaren beharren araberako sinergiak ahalbidetzea.

Hauek izan daitezke talde bakoitzaren erantzukizunak:

- Egitura mugikor birziklatu bat eraikitzea, bizikleta batera egokituz.
- Irrati libreen plataforma digitalak ikertzea (butt).
- Espazio publikoan nola eragin daitekeen aztertzea.
- Nola landu "streaming" kontzeptua alderdi sortzailetik.

2. Taldeetan, beste lan taldeen beharrak aztertzen ditugu, irtenbide komun bat zehazteko eta "MUGIKOR" aktibatu ahal izateko: egitura mugikorraren tamaina eta forma, proposamena garatzeko lekuak, instalazioaren behar teknikoak eta soinu-emisioa garatzeko sarerako konexioa.

3. Honako hauek izan daitezke beharko ditugun materialak: bizikleta bat, ordenagailu eramangarri bat, soinu-txartel bat, mikrofono bat, Interneterako konexioa eta material birziklatuak (taulak, kartoiak, etab.).

4. Espazio publikoko esku-hartzeen egutegia egin, eta ekintza bakoitza dokumentatzen dugu, egindako esperientziaren laburpena lortzeko.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Ekintzak amaitu ondoren, sortutako dokumentazioa bistaratzen dugu, eta proiektuaren aztertu gabeko zein alderdik izan lezaketen jarraipena aztertzen dugu.

2. Geure buruari galdetzen diogu:

Zer beste plataforma mugikor sor ditzakegu kultur dinamika berriak, teknologia berriak, zinema, irakurketa-espazioa edo liburutegia, irratia eta abar lantzeko?

"MUGIKOR" proiektuari jarraipena ematen jarraitu daiteke eskola espazio publikoan geletatik kanpo ikusarazten duen tresna gisa?

Zein dira inguratzen gaituen soinuaren ondorioak? Esperientziak sortzen dituzte?
Leku baten memoria osatzen dute?

Edukien diseinua: Iosu Zapata

IOSU ZAPATA

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

TRESNAKA

Soinu eskola

Ezagutzen al ditugu lekuak beren soinuengatik? Zer informazio ematen digute leku bakoitzeko soinuek? Zer eskeintzen diogu guk soinu-paisaia horri? Eta nola eragiten du gugan?

Hausnarketa hori ikasleen espaziora eramango dugu; eskolara. Soinu-ikerketa txiki bat proposatzen dugu, entzumen-ariketa errazekin, espazioa ezagutzeko eta bertan bizitzeko modu berri bat ekarriko duena.

Helburuak

- Xabier Erkiziaren obra eta sormen prozesuetara hurbiltzea.
- Entzumen-ariketetara ohitzea, ikasteko modu gisa. Isiltasuna, entzumen-ariketak eta soinu-ekoizpena, ikerketa-tresna gisa lantzea.
- Soinuak paisaiaren eraikuntzan eta paisaiarekin dugun harremanean duen garrantziaz gozatzea eta horretaz jabetzea.

Aipamenak

Soinu mapa. (Audiolab) *www.soinumapa.net*
https://www.audiolab.org/
R. Murray Schafer, Hacia una educación sonora. *https://www.academia.edu/13298511/Hacia_una_educaci%C3%B3n_sonora_Hacia_una_educaci%C3%B3n_sonora*
IN-SONORA Soinu-artea eta arte interaktiboa babesteko eta ikusarazteko sortutako plataforma: *https://in-sonora.org/que-es-insonora/*
Soinu-obra artistiko batzuk: *http://mauriciorivera.com/unagotadeagua.html*
https://vimeo.com/327337951

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

- Biribilean eserita. Minutu bateko isilunea eta entzutea. Entzuniko soinuak partekatuko ditugu. Gero, ariketa errepikatuko dugu begiak itxita 2 minutuz. *Zerbait berririk?* Gogoeta egingo dugu.
- Xabier Erkiziaren "Soinu mapa" rekin jolastuko dugu. Hainbat leku ausaz aukeratu eta bertako soinuak entzun. *Ezagutzen al ditugu? Leku horretan imajinatzen al dugu elkar?*

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Eskolako espazioetan zehar **ibilbide** bat egingo dugu. Irakasleak grabagailu edo mugikor bat darama. Taldean, hainbat lekutara joango gara eta han gelditu. Isilik gaudela 30 segunduz grabatu.

2. Ikasgelan, grabatutako soinuak **entzungo** ditugu. *Ezagutu al ditugu? Badakigu zeintzuk diren? Zer soinu gustatzen zaizkigu? Zeintzuk ez?* Kolore bat emango diegu gustatzen zaizkigun eskolako soinu-lekuei, eta beste bat gustatzen ez zaizkigunei. Denon artean, espazioak identifikatzeko modua asmatuko dugu: pegatinak, kartelak, klarionaz idaztea...

3. *Nahi al genuke soinuren bat **eraldatu**?* Taldeko esku-hartze txiki bat asmatuko dugu.

4. Esku-hartzea aurrera eramango dugu, aurrez zehazturiko espazioetan. Soinua erregistratu. Ikasgelan grabaturikoa entzun eta gertatutakoaz mintzatuko dugu.

5. Beharrezko **materialak**:

- Ordenagailua, proiektorea eta pantaila.
- Soinu-grabagailu bat edo mugikorra.
- Koloretako klarionak, koloretako pegatinak, orriak, zinta itsasgarria...
- Argazki-kamera/mugikorra, prozesua erregistratzeko.

Ondorioak eta lerro irekiak

- Gainerako ikasgelekin ikerketa-prozesua partekatuko dugu (Irakasleak aurkezpen bat egin dezake argazkiekin, audioen karpeta batekin...)
- Gainerako ikasleak gauza bera egitera gonbidatuko ditugu, hots, markaturiko soinu-espazioetako batean esku-hartze eraldatzaile bat diseinatzera. Hala bada, ekintzak erregistratuko ditugu.
- Sortutako materiala eskolaren web/blogera igoko dugu, hau ezagutarazteko beste modu bat bezala.

Edukien diseinua: Artaziak

XABIER ERKIZIA

Nola koreografiatu testu bat kolektiboki?

Elkarrekin idazteko eta irakurtzeko moduak bilatuko ditugu, esperientzia kolektiboak pentsatzeko eta bizitzeko, horrela, munduan egoteko ditugun moduen dimentsio soziala hobeto ulertzeko.

Helburuak

- Romina Casileren obrara, sormen-prozesuetara eta ikerketa-prozesuetara hurbiltzea.
- Taldeko idazketaren eta irakurketaren aukerak aztertzea, elkarrekin pentsatzeko eta bizitzeko bitarteko gisa.
- Idazketaren eta irakurketa kolektiboaren alderdi performatiboak eta gorputzekoak aztertzea.

Aipamenak

La mímica de tu voz (performace) – Romina Casileren obra: *http://rominacasile.com/La-mimica-de-tu-voz-performance*

La mímica de tu voz (argitalpena) – Romina Casileren obra: *http://rominacasile.com/La-mimica-de-tu-voz-publicacion*

La aventura del saber: Prácticas Artísticas Colaborativas - RTVE: *https://www.rtve.es/alacarta/videos/la-aventura-del-saber/aventurapcolabora/3763028/*

Gorpu guztiz fin - Wikipedia: *https://eu.wikipedia.org/wiki/Gorpu_guztiz_fin*

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Zergatik idazten dugu gure artean? Zein bitarteko erabiltzen ditugu? Zerrenda bat egiten dugu.

2. Zein gairi buruz idatzi nahiko genuke elkarrekin? Eskola gisa edo ikastetxe gisa, galdera moduan idazten dugu. Adibideak:

- Bizikidetza, zer esan nahi du elkarrekin bizitzeak zuretzat?
- Zarata, nola eragiten du zaratak zure egunerokoan?
- Adiskidetasuna, zer gustatzen zaizu zure lagunekin egitea?

3. Romina Casileren zenbait lan ezagutzen ditugu, eta *La mímica de tu voz* izeneko proiektuan gelditzen gara.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Bost kideko taldeetan, gai edo galdera bat aukeratzen dugu. Egin beharreko idazketa baten izenburua izango da, folio batean *gorpu guztiz fin* bat bezala egingo den idazketa: pertsona batek pasarte bat idatzi eta papera bikoizten du, beste pertsona bati hitz bat edo bi ikusten uzteko moduan, eta hitz horiekin beste pasarte bat idatzi eta prozesua errepikatuko du, eta horrela talde osoarekin. Amaitzean, azken idazketa argituko dugu. Idazketa inork bere pasarte propioa irakurri ez dezan moduan irakurriko da.

2. Idazketa kolektiborako beste modu batzuk aztertzen ditugu, gai edo galdera bat aukeratuz. Gelako arbela, paper jarraitu zati handi bat paretan, gelako zorua, mahai baten azpian, baita ikasgelak dituen espazio digitalak ere (Google Classroom, Google Drive, etab.) erabiltzen ditugu.

3. Bikoteka idazketaren 5 - 8 zati artean aukeratzen dugu, folio erdia gainditu gabe. Aukeraketa hori klasearen aurrean irakurtzen dugu. Pertsona batek irakurtzen du, eta besteak esaten duena bere gorputzarekin irudikatzen du. Irakurtzerakoan, hainbat motatako erritmoak, abiadurak, bolumenak, intentsitateak, isiluneak, oihuka irakurri edo xuxurlaka eta abar. Beherantz begiratuz irakurri daiteke, hormari, landare bati eta abarri hitz eginez. Eta performance horiek argazki digitalarekin dokumentatzen ditugu.

4. Idazketa/irakurketa kolektiboko prozesuak hedatzen jarraitzeko, beste konplizitate batzuk bilatzen ditugu (gela gehiago, auzoa, familiak).

5. Ikastetxeko espazio amankomunetan (patioa, jangela, korridoreak, konketak, bloga, webgunea, etab.) jar daitezkeen idazketa kolektiboko hainbat gailu diseinatzen ditugu, eta gai edo galdera bakar bat edo hainbat proposatu nahi dugun edo idazten dutenei askatasuna eman nahi diegun erabakitzen dugu. Behin-behinekotasun jakin bat ematen diogu (48/72 ordu, adibidez), eta jarraipen eta erregistro zaindua.

6. Testuen aukeraketa bat egiten dugu (adibidez: bakoitzak bere hautaketa egingo du). Aurreko ekitaldietako argazki-erregistroaz, Romina Casileren lana bistaratzeaz eta arte performatiboaren beste erreferente batzuez baliatuz, irakurketa publiko kolektiboak diseinatu eta entseatzen ditugu, ahots, gorputz eta mugimendu desberdinekin.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Talde-performanceen aurkezpen publiko bat egiten dugu.

2. Bizitzeak, pensatzeak, lan egiteak, edo soilik komunitatean egoteak, pertsonen arteko harremanak, eta kolektiboa bere dimentsio guztietan (soziala, hezkuntzakoa, afektiboa, ludikoa, politikoa…) zer esan nahi duen eztabaidatzen dugu.

Edukien diseinua: Lander Calvelhe

ROMINA CASILE

Nire ahotsa, zure ahotsa, nire ahotsa

Bizi-esperientzia batetik abiatuko gara, non gure ahotsa erdigunean egongo den. Ondoren, ikerketa- eta sormen-prozesu bat sortuko dugu, non beste ahots batzuek gure oroitzapenak mugitzen eta hortik birpentsatzen lagunduko diguten.

Helburuak

- Zarys Falconen obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Gure ahotsen balio poetikoa eta emozionalki hezteko daukaten indarra ikertzea eta hausnartzea.
- Ahozko transmisioaren balioa nabarmentzea, identitate-eraikuntzako eguneroko jarduera gisa.
- Gauzak etengabe zalantzan jartzea sorkuntza-tresna gisa ulertzea.
- Gure gorputzak sortzen dituen soinuekin eta beste batzuek sortutako soinu-materialarekin esperimentatzea.

Aipamenak

Webzinea, Zarysek sortutako testu, bideo eta audioen erreferentziekin:

https://pressplaymusic.es/webzine/grietas-sonoras/intro/

R.Murray Schafer:

https://mediosyhumanidades.files.wordpress.com/2021/08/fdocuments.ec_hacia-una-educacion-sonora-r-murray-schafer.pdf

Soinu edizioa:

https://myedit.online/es/audio-editor/

https://www.bandlab.com/

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Visionar:

- Zarysen emanaldia Katanga Dub-ekin: *www.youtube.com/watch?v=l8ywZqfZcbs*
- Kantatzen duten memoriak: *https://vimeo.com/user145105318*
- Disonancias Comunes proiektua: *https://vimeo.com/user145105318*

2. Zer dute komunean proiektu horiek? Hiru ideia pentsatuko ditugu, eta haiek partekatuko.

3. Gure ahotsa protagonista izan duen bizi-esperientzia bat gogoratuko dugu (susto baten ondorioz kontrolik gabe egindako garrasi bat, behar ez denean ateratzen den barre algara bat, komeni ez den une batean ahapetik kantatutako abesti bat, norbaiti deitzeko oihu bat…) Zein izan zen gure ahotsaren rola momentu horretan? Nola sentitu ginen horren aurretik, bitartean eta ondoren?

4. Binaka, esperientzia deskribatuko dugu:

- Belarrira xuxurlatuz
- Eskutik helduta ibili bitartean
- Baten eskua bestearen paparrean edo eztarrian jarrita

5. Taldean, nola sentitu garen eta ariketarekin zer sortu den aipatuko dugu.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Binaka, hurbileko bi edo lau pertsonaren testigantzak bilduko ditugu soinu-grabaketa batean. Ezin dira adin berekoak izan, eta, ahal bada, gutxienez 20 urteko aldea egongo da haien artean. Hiru galdera hauek egingo dizkiegu guztiei:

- Pentsatu zure ahotsa protagonista izan den bizi-esperientzia batean. Konta iezadazu.
- Gogoratzen duzu nire adina zeneukanean abesten zenuen eta abesten zizuten abestiren bat? Kanta iezazkidazu.
- Gogoan duzu nire adina zeneukanean askotan esaten zizuten esaldiren bat? Eta garai hartan esan ohi zenuen edo norbaitek esan ohi zuen esaldi bat? Esan iezazkidazu.

2. Ikerketan bildutako soinu-materialarekin 2-3 minutuko soinu-konposizio bat osatuko dugu. Aukerak:

- Hitzekin, erritmoarekin, abiadurarekin, bolumenarekin… jolastu.
- Elkarrizketatutako pertsona bakarraren testigantza erabili edo bat baino gehiago nahastu.
- Grabazioak erabili edo erreproduzitu, iradokitzaileenak edo harrigarrienak iruditu zaizkigun elementuetan arreta jarriz.
- Gure esperientzia pertsonalak berreskuratu eta konposizioan nolabait txertatu.
- Gure ahotsak eta gorputzarekin sortutako beste soinu batzuk sartu.

3. Bi bikote elkartuko ditugu, lana elkarri erakutsi eta azaltzeko. Non izan dugu arazo gehien, zer gustatu zaigu gehien eta zergatik. Zer sentsaziorekin geratuko gara? Zer ikasi dugu?

4. Lau pertsonako talde horrek gorputz-ekintza bat pentsatuko du, eta egindako soinu-konposizio bakarra edo biak erabili beharko ditu. Horretarako, mugimenduak eta denborak adierazten dituen mapa-partitura bat sortuko dugu. Hainbat aldiz praktikatuko ditugu partitura sortzen dugun bitartean.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Elkarrizketa gidatuari denbora tarte bat eskainiko diogu, galdera hauetatik abiatuta hausnartzeko:

- Gure esperientziak islatuta ikusten ditugu sortu dugun gorputz-ekintzan? Eta soinu-piezan? Haietan presente gaudela sentitzen dugu? Nola?
- Sormen-prozesuan bizitako esperientziak baldintzatu al du gure begirada besteek kontatu dituzten esperientziekiko? Edo baliteke hura baldintzatu izana? Eta gure esperientziekiko?
- Elkarrizketatuak irudikatuta sentituko al dira gure lanak ikustean/entzutean? Zergatik?
- Taldeari galderarik egin nahi diogu?

2. Ekintzak aurkezteko jardunaldi bat antolatuko dugu. Tokia pentsatuko dugu, beharrezko baimenak lortuko, eta nahi dugun publizitatea egingo.

3. Elkarrizketatuak gonbida ditzakegu (edo prozesuan parte hartzeagatik eskerrak eman, besterik gabe). Horretarako, gonbidapen (edo esker-mezu) pertsonalizatuak prestatuko ditugu:

a. Bideogonbidapena
b. Audiogonbidapena

Edukien diseinua: Betisa Ojanguren

ZARYS FALCON